



HUMUS TALDEAREN LAN BERRIA KALEAN

Tolosar hirukotea berriro itzuliko da zuzenekoetara, lau urteren ostean, 'Lekua' izeneko laugarren diskoarekin >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-12-07

VIURTEA 1.579 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jende ugari izan zen atzo bazkaltzen Zerkausian; egun guztietarako beterik dagoela azaldu dute antolatzaileek. A. IMAZ

PARRILEK EZ DUTE ATSEDENIK ZERKAUSIAN

TOLOSA Jende ugari gerturatu da Zerkausira Txuletaren Festara, zabaldu zutenetik; hasiera ekitaldian, EHNEK elkarretaratzea egin zuen, «ez dituztelako bertako produktuak erabili» 4

Etzi hasiko da Kirol Astea, eta hilaren 14ra arte luzatuko da

ANOETA Askotariko ekitaldiak izango dira: pilota, mahai-inguruak, ginkana... 6

Osatu dute TO.PIC Zentroaren Aholku Batzordea

TOLOSA Herenegun egin zuten lehenengo saioa; 17 kidek osatuko dute 7



'Rutinas' saioa, Kasinoan. I.T.

Titirijai jaialdiko azken saioak ikusteko aukera, gaur eta bihar

TOLOSA Bederatzi saio geratzen dira amaiatzeko 5

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

www.mondragon.edu/prest

Bide guztiak Durangora doaz. MU: unibertsitatea bizi!

» **Uzturretik**

Felix Irazustabarrena

Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe?... dio kantu batek. Eta Alegia gaztetxerik gabe? Bakoitzak bere erantzuna du galderetan, baina hogeita bat urte betetzen ditu egunotan gaztetxeak eta ezin dira ulertu urte horiek autogestiorik gabe.

Abenduko egun hotz baten osti-

Gaztetxea XXI.

koz atea jo eta almatzeneko hauts-en lekua gazteen ametsak hartu zuten... Modu horretan hasi izan dira Alegiako Renfeko geltokiaren okupazioari buruz idatzi diren batzuk. Ametsak egi bihurtu diren edo ez jakiten ez da erraza, denetik egongo zen, baina amestu zela egia da. Hogeita jarraitzea da kontua.

Hogeita bat urte eta gorabehera asko. Eta hori normala ere badela aitortuz, aste honetako HITZAN irakurritako autokritika dakart «utzi xamarra dago azken urteotan». Beraz urte itxieran beherako

joera du autogestioaren grafikoak. Krisia antolakuntzan, utzi xamarra ez baitiote lekuarengatik, ekimenarengatik baizik. Bakoitzaren arduratik espazio kolektiboak eraikitzean datza autogestioa eta horrek konpromisoa eta lana, gogo eta ardurak eskatzen ditu. Grafikoa goranzkoa joeran jartzeko borondatea.

Irrika eta ilusioak tarteka piztu izan dira eta nago, eraso gogorra denean edo hobeto esanda lortutakoa, eraikitakoa, arriskuan dagoenean mugitzen dela gehien

hori. Alegiako gaztetxean bai antza. Bestelako autoen gestioa egin nahi eta bota nahi zutenean 1996an, zenbait lagunene aurkako epaiketak zirenean 1998an edo besteentzako notizi, zabor iturri, bihurtu zenean 2002an (Txintxarrikerako gaztetxearen atalean dago *Epoca* aldizkariak orduan argitaratutakoa) mugitu da gehien ametsen almazena.

Orain bajuxeago omen. Juxtu herriko kultur, kirol... mugimendua lotuagoa eta emankorren dagoenean (azken bi hilabeteak horren lekuko) botatzen dugu faltan gaztetxearen ekimena.

Piztualiaren zain, itzalita dagoenik ezin esan ordea, eta urteurre-

nak urteurren, datozen egunotan, ohiko festaz gain, zinea, antzerkia, parodia edo bertsoa izango ditugu (oraingo bertso eskolak ere izena eta izana gaztetxeari zor) eta Kortatu, Negu Gorriak, Fito (orain fitipaldiena) La Polla, Su ta Gar eta abar luzeari erantsiko zaizkio aurtengo kontzertu sorta. Azaldu eta gozatzeko moduko sorta.

Zorionak beraz gaztetxo, gazte, gazte ohi eta enparaei. Hogeita batgarren mendera arte hogeita bat urteko autoantolakuntza bultzatzen duten guztiak.

Bihar lau t'erdiko finala da. Bertan hogeita batean geratzen denak galdu egingo du, beraz gogor horenik ezin esan ordea, eta urteurre-

A Argazki zaharra



Titirijai jaialdiaren hastapenetara bidai

TOLOSA ■ 26. Nazioarteko Txotxongilo jaialdia da aurtengoa. Badira urte batzuk, beraz. Jaialdiaren lehen urteetako uneak ikus ditzakegu irudi hauetan: 1983. urtekoak dira ezkerrekoak; goikoan, Carlos Lopez eta bere taldeak eraikitako txotxongiloen artean ari dira gaztetxoak igarotzen jaialdirantz; behekoan, Iparragirre aretoan gazteak sartzen ikus daitezke. Behean,

erdian, 1987. urtean, Iruñia kafetegian, Kepa Etxezarretaren eskutik, ere egiten zirela ikuskitzen ikus daiteke. Goian eskuinean, 1986an, eskualdeko irakasleak txotxongilo tailerretan aritzen ziren. Eskuinean behean, 1986. urtean, erakusketan inauguratzen ari dira, Mirentxu Etxeberria garaiko Tolosako alkatea eta Pedro Tolosa kultura zinegotzia. ■ SURTEELKARREKIN TEE

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Garestiegia baserritarrontzat

» Iritzia

Garikoitz Nazabal

Gipuzkoako EHNEko haragi saila

Euskal Herrian zaletasunik baldin bada handienetako bat dugu mahaiaren bueltan gozatzeko. Produktu bikainak ekoizten ditugu, bikain prestatu eta oraindik bikainago dastatu, hauen artean berebiziko garrantzia duelarik behi edo txahal haragiak.

Ondo landu, ondo elikatu eta ondo transformatu, hara hor kalitatearen ardatza. Honelakoa da gure baserrietako ekoizpena, gertuko eta xumea, hiltzera kondentzen ari direna.

Bertako produktuen *propaganda* egitea ezinbesteko da, kontsumoa bultzatzeko, guk ekoizten duguna prezio duin batean saltzen badugu bizirauteko arazorik ez baitugu izango (logika hutsezko kontua), lanean jarrai dezagun gure lurralde maite honen oreka eta itxura mantenduz.

Asteburu honetan, ordea, gure helburuen aurka doan festa izugarria izango dugu Tolosan, Txuleta Festa 2008. Kontraesankorra irudituko bazaizue ere kontsumitzaile askori guk hau esatea (txuleta festa = baserriko produktuak bultzatzea, ez baita horrela). Haragi sektoreko baserritarrak inoiz izan



den egerarik txarrenabizitzen ari gara. Merkatua kanpoko haragiz josita baitago (kontsumitzen denaren %25 baino gutxiago da hementengoa) eta ezin ditugu txahalak saldu. Ia kontrolrik gabe sartzen den haragi honen *produktu izarra* da txuleta (kontsumitzen den ia %100 kanpoko da). Erretegí, sagardotegi, eta abar luze batean «hau dek haragie hau» esanez jaten duguna.

Arrazoi hauek tarteko Tolosako Udalera jo genuen elkarlanerako planteamendua eginez: hurrengo urterako *haragi festa* (edo antzeko zerbait) antolatzea txuleta ordez, bertako produktuak erabili eta bultzatzeko, eta okela pieza ezberdinekin gozatzeko, egunez egun globalizatuagoa dugun gizarte honetan jan ohiturak berreskuratzen joateko ere aukera ederra genuelako. Gure harridurarako ez da horrela izan. Ezikusiarrena egin

eta aurrera jarraitzea erabaki dute, baserritarroi bizkar eman eta kanpoko haragiarekin lan egiten duten komertzial horiei propaganda eginez gainera. Ez al zarete jabetzen merkataritza hori bera dela gu jaten ari dena? Edo ez zaizue axola? Dituzeun helburu turistikoak ez al dira babeteke sektoreari bizkar emangabe?

Baserritarrok lanean jarraituko dugu kalitatezko produktuak ekoizten, gure larre eta mendiak garbi mantentzen, basoak zaintzen, eta kontsumitzailea informatzeko, zor zaigun errekonozimendu eta errespetua lortuko baldin badugu. Zuri, kontsumitzaile, hausnarketarako deia luzatzen dizugu, zure erosketa egiteko moduak baldintzatzen baitu gure biziraupena, elkarrentzako ezinbestekoak baikara.

Erosi bertakoa, erosi garaian garaikoa, erosi kalitatezkoa!

G Gutunak

Egindakoak harrotasunez, egitekoak kemenez

Askotarikoak dira euskaldunok gure hizkuntzaren inguruan izaten ditugun keak; ez dakitenez ez dutela ikasten, dakitenez ez dutela hitz egiten edo hizkuntz eskubideak ez direla bermatzen. Azken finean, irakurtzen ari garen eleberrian amaitzeko falta zaizkigun orriak kontatzen ditugu, eta sarritan ahazten gara irakurriko guztia.

Horregatik pentsatzen dugu, euskararen eguna ez dela soilik errebindikazioak egiteko eguna, lorturikoaz harro egoteko eguna

ere badela. Edo ez al da inor oroitzen ikastolak klandestinitatean mantendu beharreko garaiez? Eta euskaraz besterik ez zekitenegi egiten zitzaizkien burlez? Euskararen ofizialtasuna ere, orain urte gutxi txiki kontua da.

Beraz, inoiz hizkuntza batek izan duen egoera aldaketarik handienetako izan du gureak; izan ere, euskaraz bizitzea ez da kimerara, hainbat lekutan jada posible den errealitatea baizik.

Baina noski, hori ez galtzeko hitzunen konbentzimendua ezinbestekoa da. Horregatik egiten zaigu sinesgaitza, adibidez, biztanle elebidunak sortzeko aukera du-

gun honetan, jendeak aukera horri uko egitea guztiz gaztelerazkoa den hezkuntza-ereduaren hautua eginez. Bai eta gero, elebitasun hori, haurrak astean hiru orduz ingeleseko akademiara eramanez lortzea.

Esandakoak esanda, nabari da, ez garea euskararen inposizioaren aldekoak, eta kontzientegarela irakurriko eleberriarren zatiaz. Hau da, euskararentzat oinarri solidoa lortu izanaren harrotasunaz baliatuz, eraikin sendoa altxatzea dugu helburu.

Clara Urteaga eta Txoan Ormazabal (Laskorain Ikastolako 2. batxilergoko ikasleak). Tolosa

Giro lasaia izan zen herenegungo azokan

Azoka » Bisitari kopurua handia izan ez arren, salmenta ugari izan ziren; neguko barazkien eskaintza oso zabala da.

PABLO ALBERDI

Azoka egun lasaia suertatu zen herenegun goiz osoan zehar. Asteburuari jai dela eta, ostiralean izan zen, eta bisitarien kopurua ez zen beste asteburuetakoa izan. Halere, gerturatu ziren erosleak erostera joan ziren, eta azkenean, salmentak ez ziren makalak izan.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA	Merk.	Gares.
PLAZA Landareak		
Erroneroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Ziklamena	5,50	-
Azalea	8,50	-
Xarbotia	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4,00
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelia	4,50	-
Biola	3,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Nikaloa	15,00	-
Mendiko angula	10,00	-
Gamuza	15,00	-
Ziza horia	12,00	-
Onddoa	20,00	30,00

Fruta

Mizpiradia	3,00	-
Kiwi	3,00	-
Errezil sagarra	1,00	-
Gaztaina	3,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kayote	2,00	-
Gardua	3,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	3,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00

Eskaintza bere garaikoa izan zen. Neguko barazki asko, gardua barne, eta batzuk gainera, tamainakoak. Porruak eta azenarioak adibidez, kalibre oso zabala dute dagoeneko. Babarrun desberdin asko izan ziren ere bai, eta fruta zerranda ere oso zabala izan zen.

Perretxiko eskaintza ez zen asko aldatu. Bertako onddo gutxi, kanpokoak bai, nikaloak, ziza horiak eta mendiko angulak ere barne. Prezioak ez dira aldatu, eta dirudienez ez dira aldatuko; esan beharra dago oso une onean gaudela, eta prezioak ez dira orain batera tuktak.

Barazkiak (sorta)

Roblea	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	6,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-
Txikoria	1,00	1,25
Trebisoa	0,90	-

Besteak

Arraultzak	1,10	2,40
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00
Ogi biologikoa (900 gr.)	3,20	-

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Behi gazta	7,00	7,50

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak

Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	2,00
Letxua	1,00	-

Besteak

Ahuntz gazta (200 gr.)	3,00	-
Ogia	2,55	-
Arraultzak	3,50	-

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Zerkausian txuleta dastatzeko aukerak amaitu dira dagoeneko

Txuleta Festa 2008 Menu berezia Tolosako erretegieta dastatu daiteke oraindik antolatzaileen esanetan.

ASIER IMAZ

Aurtengo Txuleta Festa bihar amaituko da Tolosan. Herenegun zabaldu zituen atek Zerkausian eta afaldarrek ez zuten hutsik egin. Antolatzaileen esanetan Zerkausian ipini duten jatetxerako txartel guztiak saldurik aurkitzen dira, baina txuleta menu berezi hau dastatzeko asmoa duenak, oraindik izango du aukera, izan ere, Festa parte hartzen ari diren jatetxe eta erretegiek euren jantokietan menu hau eskainiko omen dute bihar arte.

Bazkari edo afari erreserbak egiteko 943 69 74 13 telefono zenbakira deitu beharko da. Posta elektronikoz erreserba egin nahi duenak, helbide honetara bidali beharko

du mezua bere datuekin: tour@tolosaldea.net.

Gaur eta bihar zer?

Bazkaria 13:30etik 15:00etara eskainiko dute Zerkausian gaurkoan. 17:00etatik aurrera berriz Beotibar pilotalkuan zesta punta ikusteko aukera egongo da. 19:00etan Euskal Okelako txahalerrea dastatzeko aukera egongo da Triangulon.

Bihar Sortzez Garbiaren egunean, Andre Maria parrokian musika emanaldia egongo da 11:00etan. Ondoren, ohiko orduan, bazkaria egongo da Zerkausian.

II. Txuleta Erronka

Beotibar pilotalekuan II. Txuleta Erronka jokatu zen atzokoan. Bertan, Titin III-Zubieta eta Bengoetxea VI-Beloki aritu ziren lanean. Leitzarrak eta burlatarrak 22-14 irabazi zuten partida, ondorioz, txuleta zinta bat irabazi zuten. Partida ostean jaso zuten saria pilotariarik.



Ateak zabaldu orduko jende andana bildu zen Zerkausiko jatetxearen sarreran txuleta jateko gogoz. ASIER IMAZ



II. Txuleta Erronka Oinatz Bengoetxeak eta Ruben Belokik irabazi zuten Titin III-Zubietaen aurka 22-14. ASIER IMAZ

«Lan egiten dugu baina barre ere bai»

JAVIER HUALDE Orue erretegioko sukaldaria

Ateak zabaldu orduko, Zerkausian jendea mahaian eseri zen bazkaltzeko gosez. Gehienek begirada parrilak aurkitzen ziren lekura zuzendu zuten, han zegoen lanean Javier Hualde (Tolosa, 1980) Orue erretegioko sukaldaria. Aurtengoa

hirugarren urtea du Txuleta Festa.

Herenegun hasi zineten lanean, zer moduz joan zen lehen afaria?

Ondo. Zerkausia bete egin zen. Hurrengo egunetakoa ere salduta omen dago. Herenegun 225 lagun

inguru bildu ziren eta atzo eguerdian ere berdintsu.

Idiaren txuleta aipatzen da berezitasun bezala Festa honetan.

Idiaren txuleta lehen zen. Idiak lurrrak erreibitzen zituzten baina gaur egun makinariarekin,

ez dago idirik. Ondorioz, behi zahararenak dira hauek, guk horrela deitzen diegu. Gutxienez abereak 5 urte eduki behar ditu, gehienak 6tik gorakoak dira. Guretzat hauek dira hoberenak, koipea muskulu artean sartu dutenak.

Ospea baduzue eskualdean, ba al duzue teknika berezirik parrilan sukaldatzeko?

Nik uste leku guztietan txuleta berdinean egiten dela. Ospea agian egiten urte gehiago daramatzagularako izango da. Garrantzitsuen

kalitatezko haragi bat edukitzea da, gero gainean egon behar duzu. Animalia guztiak ezberdinak dira eta horren arabera haragiaren tenperatura, sua, ez da zientzia zehatz bat baina parrilak gainean egotea eskatzen du. Ideia nagusia honako hau da: haragiaren poroak itxi behar dira eta horretarako kos-tra egiten dugu. Honela, haragiak dituen zukuak barnean gelditzen dira.

Jendea jai giroan dagoen bitartean zu lanean?

Bai, baina beti esaten dudana, lana egiten dugu baina baita barre ere. Ohituta gaude, ostalaritza badakigunolako den, besteek jai dutenean guk lan egiten dugu. Denetara ohitzen zara azkenean.



«Kanpoko txuleta» eta Udala

ALDARRIKAPENA Txuleta (komertzialaren) Festa 2008 ospatzen ari da Tolosan Gipuzkoako EHNEren esanetan. Zerkausian herenegun atek zabaldu zituztenean, elkarretaratzea egin zuten «kanpoko haragi kontsumitzea, bertako baserriarrek inamaitzea» dela ohararaziz. EHNEk Tolosako Udalaren jarrera salatu zuen; datorren urtera begira aldaketak propo-

satu arren, «bertako produktuak erabili eta bultzatzeko», Udalak «erantzun ere ez» duelako egin. Tolosako Udalaren ordezkari afera honen inguruan galdetuta, honakoa erantzun zuten atzokoan: «Posible izan den euskolabeldun haragi gehien eskaini da. Txuleta Festa barnean haragi kata bat egitea eskaini zitzaizkien baina ez genuen erantzunik jaso». A. IMAZ



ASIER IMAZ

Titirijai jaialdia azken txanpan

Kultura » Madrilgo Teatro de la Luna taldearen 'El jardinero' estreinatu zen atzo; gaur eta bihar 9 saio izango dira jaialdia amaitu aurretik.

INIGO TERRADILLOS

Aurtengo Titirijai jaialdia ari da pixkanaka azkenera iristen. Dena den, oraindik ere asteburu luze hau kontuan hartuta, hainbat saioz gozatzeko aukera izango da gaur eta bihar.

Herenegun Kasinoan Eugenio Navararren ikuskizuna izan zen. Rutinas izenekoarekin ederki igaro zuten bertaratu zirenek. Protagonista xelebrearen pasadizoak ikusi ahal izan ziren; batetik ikusle goa aurkeztu zuen hainbat burhauste eta gero *Hola* jartzan zuen kartela modu egokian jarri zuelarik. Ondoren, mamuek ez zioten lorik egiten uzten, eta gero nahiga-

be bere andregaiari eman zion kolpea mamuari eman ziolakoan. Bere haurra agertu zen eszenan, eta ia krokodiloak jan zuen; eta azkenik protagonista akabatu nahi zuen deabrua zegoen; horretarako zezen bilakatu zen, baina alferrik izan zen, ederki toreatu baitzuen gure lagunak. Istorio polita bezain xelebreak, beraz, eta barreek ez zuten hutsik egin.

Bestalde, atzoko ekitaldiardatza Madrilgo Teatro de la Luna taldearen *El jardinero* ikuskizunaren estreinaldia izan zen. Eskualdeko hainbat artisten parte-hartzea dago lan honetan, eta harrera ona izan zuen Leidorreko saioak.



Eugenio Navararren *Rutinas* ikuskizunaren une bat, herenegun, Kasinoan. I. TERRADILLOS

» EGITARAUA

Gaur

■ **12:30.** Laenanaranja talde euskaldunaren *Inmundo doblador de barotes* izango da Kultur Etxean.

■ **17:00.** Errusiako Teatro 2 Plus K taldearen *Historia de una marioneta*, Kasinoan.

■ **17:30.** La Picara Locuela talde espainiarren *Juego de Polichinelas* ikuskizuna, Musika Eskolan.

■ **18:00.** Sri Lankako Traditional Puppet Art Museum taldearen Traditional Puppet Dances ikuskizuna izango da Berdura Plazan ikusgai.

■ **19:00.** Andaluziako Buho & Ma-

ravillas taldearen *Los músicos de Brenes* lana izango da ikusgai, Leidorren.

Bihar

■ **12:30.** Errumaniako Arlechino taldearen *La pequeña bruja*, Kultur Etxean.

■ **17:00.** Errusiako Teatro 2 Plus K taldearen *Historia de una marioneta*, Kasinoan.

■ **17:30.** San Petersburgoko taldearen *El patito feo*, Musika Eskolan.

■ **19:00.** Kataluniako La compañía del príncipe Totilau taldekoek *Seis Juanes* ikuskizuna eskainiko dute Leidor aretoan.

Erosi berriak

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

SOLAGÜEN 2004. urteko ardo **ONDUA**



12 botilako kutxa
72€

REMELLURI 2004. urteko **ERRESERBA**ko ardoa



3 botilako kutxa
40€
6 botilako kutxa
80€

GORROTXATEGI PRODUKTUAK

Lotea **29€**

Tolosako Xaxuak
Txakolin txokolatlea
Jagurt turroia
masusta gorniarekin
Aktikoa eta merxika
turroia



Mandarina turroia
boiur zuriarekin
Txokolatle turroia
almandrekin
Merxika turroia
txokolatlearekin
Jagurt turroia
masusta gorniarekin



Turroi askotarikoak
1950€

Alfar
OLISA OLIO SIRJINA EXTRA
6 botilako kutxa
(0,5 litro)
36€

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura:
Zure etxera - Oparitu nahi duzun lagunaren etxera edo lantokira.

Eskaera epea:
azaroaren 30a arte
Eskera egiteko:
943-30 43 45
Bidalketa gastunik gabe



hitza Denda

Lavazza Espresso Point sistema liderra da Europan; sistema horrekin, munduko kafetegirik onenetako kafea bezalakoak hartuko duzu.

Coffee Break Kit + 20 kontsumizio
Opari

egiatako espresso italiarra

Espresso Point kapsula makina eskusibo eta erabilerrazari esker, espresso italiar peto-petoe hartu ahal izango duzu, nahi duzunean. Horretaz gain, zazpi te mota prepara ditzakezu, baita kafeinagabea, txokolatlea, cappuccino, kamamila eta salda ere, merkatuko beste sistemek baino aukera gehiago ematen baitu.

LAVAZZA
ESPRESSO POINT

Prezio berezia
HITZAren irakurleentzat:
135€
Instalaztea eta bidaltzea, dohainik *

Eskaera epea:
abenduaren 14a arte
Eskera egiteko:
943-30 43 45
Bidalketa gastunik gabe

*EUSKOAZZA enpresako teknikariak arduratuko dira zerbitzua emateaz.

hitza info

Astearte honetan hasiko dute Kirol Astea

Anoeta » Mahai-inguruak, pilota partidak... antolatu dituzte datorren asterako; ikastolako umeen erakusketa ere izango da.

ERREDAKZIOA

Asteartean, hila 9, emango diote hasiera igandean, hilak 14, amaituko den Anoetako Kirol Asteari. Bien bitartean, kirol desberdinen inguruko informazioa eskuratu ahal izango da eta joko eta lehiaketa desberdinetan parte hartzeko aukera ere eskainiko dute.

Horiek horrela, mendi diaporama, txirringularitzari buruzko mahai-ingurua eta spinning maratonia izango dira, besteren artean, datorren astean. Izan ere, kirol zaltetan bultzatu nahi dute antolatzailerak ekintza hauekin eta horretarako Abraham Olano, Leire Olaberria edota Josu Agirre bezalako kirolariak ere gonbidatu dituzte.

Erakusketa

Aste osoan zehar, gianera, *Kirola Anoeta* erakusketa izango da ikusgai kiroldegian. Goizetan 09:00etatik 12:30era egongo da zabalik eta arratsaldean 15:00etatik 21:30era. Erakusketa herriko ikastolako ikasleek landu dute eta berriro Anoetan egiten diren mota desberdinetako kirolen jarduerak biltzen dira.

Kubako txapelkunak, herriari

Bestalde, aipatu behar da hilaren 12an gomazko paletako pilota partidak egongo direla frontoian eta bertan Kuban izan berri den Gomazko Paleta Munduko Txapelketan aritutako neska arituko direla. Su-Berri pilota elkarteko Itsaso Urkizu, Nagore Arozena, Maider Mendizabal eta Oberenako Maite Ruiz de Larramendi, izango dira hain justu Anoetan.

Mutilak ere ariko dira, hauek 2008ko herri txapelketako finaleko errebantxa jokatu dute: Bittor Leunda eta Juan Karlos Otero, Xabier Zubeldia eta Aitor Landaren aurka.

Antolatzaileek ginkana familia-



Abraham Olano txirringularitzaren inguruko mahai-inguruan egongo da. HITZA

rean eta spinning maratonean parte hartzeko izena alde aurretik eman behar dela ere esan dute, hilaren 11 baino lehen, zehazki. Kiroldegira jo behar da horretarako.

Ginkana familiarrean parte har-

tzeko gutxienez heldu batek eta ume batek osaturiko taldeak egin behar dira eta umeak LHletik aurrerakoak izan behar dira. Parte-hartzaile guztien artean sariak zozketatuko dituzte, gainera.

» EGITARAUA

Abenduak 9, asteartea

■ **19:00.** Batelen inguruko hitzaldia eta DVD emanaldia udal areto nagusian. Anoetako arraunlariak bere egitasmoa nola sortu eta gauzatu zuten azalduko dute.

Abenduak 10, asteazkena

■ **19:00.** Mendi diaporama Udal areto nagusian: *Alpimanco expeditzioa: trangoko dorreak-pakistan*. Zizurkigo Kattuk, Fontak eta Gorkik expeditzioaren nondik norakoen berri emango dute.

Abenduak 11, osteguna

■ **19:00.** Txirringularitzari buruzko mahai-ingurua udal areto nagusian. Abraham Olano, Leire Olaberria, Itxaso Leunda, Josu Agirre eta Oxel Leunda izango dira bertan. Aitor Elduaie izango da moderatzailea.

Abenduak 12, ostirala

■ **17:30-19:00.** Pilota sustatzeko joko desberdinak egingo dituzte frontoian.

■ **19:30.** Gomazko paletako pilota partidak frontoian: Nesken paleta partida egongo da batetik (Kubako mundu-txapelketan parte hartu duten neskekin) eta mutilena bestetik (2008ko herri txapelketako finaleko errebantxa).

Abenduak 13, larunbata

■ **16:00-19:00.** Spinning maratonia. Izena ematea hilaren 11 arte, kiroldegian bertan.

Abenduak 14, igandea

■ **10:00.** Ginkana familiarra: taldeak gutxienez heldu eta ume batek osaturik egon behar dira. Izena abenduaren 11 baino lehen eman behar da kiroldegian.

«Zertarako emigratu euskarara?»

Tolosa » Ereitek gonbidatuta Kike Amonarrizek eta Xabier Aierdik hitzaldia eskaini zuten herenegun iluntzean.

REBEKA CALVO

«Zertarako emigratu euskarara?», hauxe izan zen Kike Amonarrizek ostiral iluntzean Tolosako Haur Liburutegian eskaintako hitzaldiaren abiapuntua. Izan ere, Amonarriz eta Xabier Aierdi soziologoak izan ziren herriari Ereite elkarte multikulturalak Euskararen Egunaren harira antolatutako hitzaldia eskaintzeko. Euskara eta emigrazioa izan zuten biek hizpide, baina bakoitzak, noski, ikuspuntu desberdinetik jorratu zuen gaia.

Horiek horrela, Kike Amonarriz izan zen hitza hartzen lehena eta aipatu esaldia hartu zuen abiapuntua, izan ere, Luis Aracil soziolinguista kataluniarrak Tolosara egindako bisita batean egin hausnarketa «oso interesgarria» iruditu zitzaion tolosarrari; «euskal hiztunen komunitatea erakargarri egin behar duzue bertara emigraetzeak merezi ahal izateko», alegia. Amonarrizek, hala ere, emigrazioa «fisikoa, gizartekoa, lurraldekoa...» izan daitekeela esan zuen eta AEBetara joandako ehunka euskaldunen kasua ekarri zuen gogora gaur egun gurera etorritako

kanpotarren kasua hobeto ulertzeko gako ere eman dezakeela uste baitu tolosarrak. «AEBetara joandako euskaldunei euren hizkuntza eta kultura gordetzeko eskatzen genien hemendik eta pentasatu behar dugu hona etorritakoei ere euren jaioterrian gauza bera eskatuko dietela. Eta gu, aldi berean, hemen, gure hizkuntza eta kulturara gerturatzeko eskatzen diegu». Hausnarketa gaia izan daiteke hau, Amonarrizen ustez, batez ere, egungo etorkinen egoera eta garai batekoena arras desberdinak direla kontutan hartuta.

Lan eredia aldatzeko umea?

Xabier Aierdik, bere aldetik, hainbat datu eman zituen. Soziologoa Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokitiko zuzendari ere bada eta beraz, *Hizkuntza-arazoak eta arazoizko buruhausteak* izenpean egungo gizartearen nolabaiteko erradiografia egin zuen.

Bere hitzetan biztanleria, orokorrean, irekiagoa da orain eta euskararen egoerarekiko kezka gehiago ditu, baina «horrek ez du esan nahi gehiago hitz egiten denik», esan zuen. «Nahiko etsituta daude batzuk —esan zuen erdi txantxetan— izan ere, euskararen kontua bideratzen ari ginelako uste genuenean kanpoko jendea etorri da eta orain berriz ere hasi behar dugun. Lan eredia aldatzeko umea iritsi da, behar bada».



Kike Amonarriz eta Xabier Aierdi hitzaldiko ume batean. R.CALVO

Iragarki laburrak


SALGAI

■ **Motorra.** 2002-03-04ko eta 2005. urteko Yamaha VWR 450-F motorrentzako pro circuit T1 4 markako eskape osoa eta pieza asko salgai. 600 eurotan guztia. 667 418 875ra deitu.

■ **Etxebizitza.** Nafarroako Intzako herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin salgai, bertako eran sendotuz eraberritu eta estreina-

tzekoa. Modu onean dago. Ezinduentzako egokituta dago eta landetxeajartzeko aukera du. 628 030 727, 646 111 485 edo 609 218 341 telefonoetara dietu edo estanga@wanadoo.es helbidera idatzi.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu 657 230 011 edo 634 919 482 telefonoetara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ **Eztabaida.** HITZAREN web gunean aste honetako eztabaidan zeuen iritziak emateko aukera izango duzue. Oraingoan hauxe da proposatzen zaizuen gaia: Villabonan emakume batek 3.000 euro aurkitu zituen eta Udaltzaingora eraman zituen, honela jabeak diru hori berreskuratu ahal izan zuen. Zurea ez den dirua aurkituko bazenu, bueltatuko al zenuke? Kopuruak baldintzatzen al du dirua itzultzeak? Era berean, inguruko azken albisteen berri ere izango duzue web gunean:

www.tolosaldekohitza.info

E Elkarrizketa

MANTXI › Humus taldeko gitarra-jotzailea eta ahotsa

«Zerbait indartsua, sasoi-koa eta zuzena egiten saiatu gara»

Musika › Lau urteren ostean hemen da berriro Humus taldea lan berri bat eskuarteantutela; 'Lekua' izena jarri diote disko honi.

ESTI EZEIZA

Humus tolosako hirukoteak disko berria kaleratu du. *Lekua* izenburupean, doinu trinkoak eta melodia ederrak dakartzate. Natalia (baxua eta ahotsa), Edu (bateria) eta Mantxi (gitarra-jotzailea eta ahotsa) osatzen dute taldea. Hemendik aurrera zuzenean defendatu beharko dute azken lan hau. **Lau urte igaro dira azken diskoa atera zenutenetik, nolatan etorri da orain laugarrena?**

Tarte honetan ere, nahiz eta eszenatoki gainean ez aritu, ez dugu utzi musika. Beste gauza batzuk egiten aritu gara. Baina iritsi zen uea, non abesti berriak genituen, gogo berriak eta lagunak ere animatzen ziguten.

Musikarekiko harreman hori nola mantendu duzue tarte honetan?

Beti izan dugu gustuko musika. Hala, nahiz eta kontzerturik ez eskaini, entzutera eskotan joaten gara, beti Bonberenea inguruan ibiltzen gara. Gure lagun gehienak ere, neurri batean edo bestean musikariak dira, eta gustatzen zaizun gauza bat egiteaz ezin da utzi. Gazteagoa zarenean eskotan pentsatzen duzu iritsiko dela momentu bat, utzi beharko duzuna, baina hori barruan daramagu eta indarra ematen digu.

Zergatik bataiatu duzue, 'Lekua' izenarekin?

Izena jartzeko garaian, ez dugu ideia zehatzik izaten. Lekua esan nahi du, bakoitzak badakiela, zein lekutan egon behar duen. Guk badakigu zeinetan gauden, eta zein leku hartu behar duen. Hori da adierazi nahi duguna. Ez da gure lekua aldarrikatzen dugula, baizik eta bakoitzak bere lekua duela. Diskoaren azalak ongi adierazten du esan nahi duguna.

Laugarren honetan, aurrekoekin alderatuz desberdintasun handiak daude.

Bai, argi eta garbi. Aurreko diskoetan beste gauza batzuen bila joaten ginen. Gauza teknikoek gehiago arduratzen ginen. Oraingo honetan berriz, hori guztia alde batera utzi dugu eta gauza indartsu, sasoi-koa eta zuzen bat egiten ahalegindu gara. Eta egia esan, gustura gaude atera zaigunarekin. Besteak, agian, metal deitzen den rock mota ho-



Humus talde tolosarreko kideak. HITZA

rren ondoan zeuden, eta hau berriz, pixka bat behintzat aldenutu egiten da, nahiz eta kutsua mantendu.

1998an hasi zineten. Hamar urtetan, zuen bizitzeko modua ere aldatuko zen, honek eraginik izan al du musikan?

Bai, lehendabiziko eragina izan da orain ez daukagula lehen adina denbora musikarentzako. Orduan, gure lanak, gure bizitza eta musika besterik ez genuen. Orain berriz, gure lanak, gure bizitzak, beste txiki baten bizitza, eta ahal denean, musika. Gehien aldatu dena hori da.

Zaila al da egunerokotasuna musikarekin uztartzea?

Bai, zaila da, baina ez da ezinezkoa. Lehen ere, musikaren mundua pixka bat baztertu genuen, ez genuelako posible ikusten. Baina denbora igaro denean, eta gauzak arduratzen ginen. Oraingo honetan berriz, hori guztia alde batera utzi dugu eta gauza indartsu, sasoi-koa eta zuzen bat egiten ahalegindu gara. Eta egia esan, gustura gaude atera zaigunarekin. Besteak, agian, metal deitzen den rock mota ho-

'Lekua' izeneko disko hau Bonberenearekin grabatu duzue. Gustura al zaudete emaitzarekin?

Egin ditugun disko guztietan lagunak izan ditugu gurekin lanean, oso jende jatorra eta langilea. Baina azken honetan, aurrekoak gutxietsi gabe musikaz asko dakien bat izan dugu alboan, Karlos Osinaga, Txap, hain zuzen ere. Oso gustura gaude egin duen lanarekin, lehen momentutik ulertu baitzigen. Halaber, azken emaitza zoragarria izan da guretzat.

Gaur egungo gaztetxoek agian ez dute ezagutuko zuen musika, nola azalduko zeniekete hauei, egiten duzue?

Zaila da hau. Hala ere, gaztetxoekin egoten gara Bonberenean, eta ideia batzuk badituzte. Badakite musika oso indartsua dela. Baina azken disko hau nolakoa den azalduz zaila da, 80. hamarkadako eta 90.aren hasierako kutsua ere bai baitu. Ukitu moderno batzuk ere baditu nahastuta, baina zaila da hitzetan agertzea. Agian, gure adineko bati adierazi behar banio, errazagoa izango litzateke. Hauei esango nieke, 20 urte genituenean gustatzen zitzaigun musika hori egiten dugula, baina gaur egungo euskarri teknikoak erabili.

Eszenatokitara itzultzeko gogoz egongo zarete. Noiz dituzue hurrengo kontzertuak?

Abenduaren 20an, Alegiako Gaztetxearen urteurrena ospatzen dute, eta bertan joko dugu, Zea Maysekin batera. Bestetik, datorren urtean ere hainbat lotuta ditugu, Nafarroan, Bizkaian, eta Zaragoza aldean. Baina pixkanaka saio gehiago ateratzen joango dira, oraindik ere jende gutxi baitaki itzuli garena.

Durangoako Azoka ospatzen ari da egun hauetan. Zer moduz ikusten duzu euskal musikaren egoera?

Lau urte hauetan gehien nabaritu dudana aldaketa hori izan da. Aurreko diskoa atera genuenean gauzak gaizki zeuden, eta lehendabiziko disketeak ixten hasiak zeuden. Baina orain, egoera okerragoa da. Euskarri fisikoak ez du etorkizunik, eta diskoak Internet bidez baltzen hasi beharko dira. Hori da gehien nabaritu dudana. Gazteek ez daukate diskoak erosteko grinik, kantuak mugikorrean edo MP3an eraman nahi izaten dituzte.

TO.PIC Zentroaren Aholku Batzordea osatu dute jada

Kultura › 17 kidek osatzen dute, tartean Ainhoa Arteta sopranoa eta Joxean Muñoz Tabakalerako zuzendaria.

ERREDAKZIOA

Aurreikuspenen arabera datorren urteko udazkenean irekiko duten TO.PICek, Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak, badu jada Aholku Batzordea. Guztira 17 kidek osatzen dute, kulturari lotutakoak batzuk eta enpresa edota gizarte-gaiekin harremana dutenak beste batzuk. Tartean dira Ainhoa Artetasopranoa, Lucia Lacarra dantzaria, Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxearen lehendakaria, Alberto Iglesias kompositorea, Juan Ignacio Vidarte Guggenheimeko zuzendaria eta Enkarni Genua titiriteroa. Tolosako alkate Jokin Bildarratz da batzordearen presidentea eta lehenengo saioan, hau da, herenegun, batzordeak, besteak beste, organo berriaren eginkizunak eta araudia izan zituen hizpide.

☎ Telefonoak

☎ Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbula: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320



12°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka


■ **Tolosa.** III. Txuletaren Festa Zerkausian. 13:30etik 15:00etara, bazkaria; 17:00etan, Beotibar frontoian, Zesta Punta jaialdia; 19:00etan, Euskal Okelako txahal erreka prestatuko dute dastatzeko aukera izango da Triangulon. 1.200 pintxo inguru banatuko dira.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Titirijai Txotxongiloen jaialdiko erakusketa, *Errusiarako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian. Errusiako Obratzov, Voronezh eta Ekaterinburgokoak konpainietako txotxongiloak daude.

Deialdiak

■ **Tolosa.** 27. Shanti Trofeoan izen-ematea Shanti Kirolak dendan: infantilek (1995/96), alebnek (1997/98) eta benjaminek (1999/2000) har dezakete parte.
■ **Tolosa.** Kontseiluak, hilaren 13an, BECen antolatatu duen ekitaldira autobusak antolatatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiren egoitzan, 11 euroren truke (bazkideek, 8 euro).
■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria hilaren 13an, Maite Amonarritz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea 699 55 17 65 zenbakian.
■ **Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak Eguberrietan Merkatu Txiki Misio-laria antolatuko du. Dendari eta herritarrei egin diete deia materiala eramateko Parrokiko lokalera 17:00etatik 20:00etara.
■ **Tolosa.** Txinparta elkarteak, abenduaren erdialdean egingo duen ohiko batzar nagusian, besteak beste bazkide berrien onarpena aztertuko du. Elkarteko kidea izateko interesa izanez gero deitu 607 83 59 67 zenbakira.



Euskarazko antzerkia Gurean

VILLABONA ● Antzerki emanaldia zegoen atzo Gurea aretoan, *Beltzinika* antzerki saioa hain zuzen ere. Haurrentzat zuzenduriko ekitaldi honetara ez zen jende gehiegi hurbildu. Euskaraz lan egitea gogorra dela

kontatu behar zuen Beltzinikak, antzerkiko neskatoak, atzoko emanaldian, baina Gurea aretora joan zirenei eskaini zizkion bere ipuin eta abenturak. Agian *Negritica*-k arrakasta handiagoa izango zuen atzokoan. A.I.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartean gabonsariak hartzeko aukera izango da egoitzaren areto nagusian, hilaren 9tik aurrera. Horretarako, bazkide txartela erakutsi beharko da. Bestalde Gabonetako loteria-txartelak eskuratzeko aukera badela oraindik adierazi dute.
■ **Zizurkil.** Itsasmenetikoi Fraisorok lorezaintzako proiektuak diseinatu, egin eta aurkezteko ikastaroa antolatuko du. Lorezaintzako teknikari eta lorezaintzako heziketa zikloetako ikasleentzat eta lorezaintzako oinarritzako pres-takuntza dutenentzat.

Titirijai

■ **Tolosa.** 26. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren baitan, 5 saio izango dira gaur, goizez eta arratsalde: 12:30ean, Kultur Etxean, Laenanararaja; 17:00etan, Kasinon, Tatro 2 Plus K; 17:30ean, Musika Eskolan, La Picara Locuela; 18:00etan, Berdura Plazan, Sri Lankako antzerki taldea; 19:00etan, Leidorren, Buho & Maravillas.

Zinema

■ **Villabona.** 17:00etan *Super Agente 86*; 19:30 eta 22:30etan, *Quemar despues de leer*. Bihar, 17:00etan *Super Agente 86* eta 19:30ean *Quemar despues de leer*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36.

HITZAK ez du bere gain ezzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

SHUYANA
EDERGINTZA

Shuyana kosmetika denda berria
abenduaren 9an INAUGURATZEN dugu
eta gure bezero eta lagunei gonbitea luzatzen diegu

Abenduak 9 ASTEARTEA • 19:00tan

Korreo kalea, 1 • Tel.: 943 67 14 68